

FRANCISCO LAPHITZ ETA JEAN-PIERRE ARBELBIDEREN OMENEZ

Ageriko bilkura

Irisarri, 2005-VII-21

Irisarrin, Herriko Etxearen ondoan dagoen Denen Etxean, 2005eko uztailaren 21ean, bildu da Euskaltzaindia, arratsaldeko 17:00etan, F. Laphitz eta J.P. Arbelbideren heriotzaren mendeurrenean.

Bildu dira: A. Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; X. Kintana, idazkaria; J. L. Lizundia, diruzaina; H. Knörr, Iker sailburua; A. Iñigo, Jagon sailburua; J. Haritschelhar, euskaltzainburu ohia eta J. A. Arana Martija, A. Arejita, P. Charritton, J. L. Davant, E. Larre, Tx. Peillen eta P. Salaburu euskaltzain osoak.

Euskaltzain ohorezkoak: J.B. Dirassar, J. Camino eta J.B. Orpustan.

Eukaltzain urgazleak: G. Alfaro, X. Arbelbide, Erramun Baxok, I. Camino, J. Casenave, J.P. Curutchet, J.B. Etcharren, L. Etxezaharreta, R. Idiart, M. Itçaina, D. Lantard, M. Pagola, P. Telleria eta J. J. Zearreta.

Batzordekideak:

Euskaltzaindiko langileak: A. Okariz eta M. Mongabure.

Ekitaldiaren hasieran herriko auzapezak, Jean-Pierre Indaburu jaunak, ongietorria eman die bertaratu direnei eta euskaltzainburuak ere agur-hitzak esan ditu, eta ondoren hitza eman die hizlari desberdinei.

P. Charritton: «Frantzisko Laphitz–Arriadaren bizia eta lanak»

Euskaltzaindia Irisarrin, zertarako. Galdera eta erantzuna, biak batera egin ditu, gaurkoan, Piarres Xarritton euskaltzain eta Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko ordezkariak: «Euskal literaturaren historia apur bat badakienak ihardetsiko dio bakoitzari XIX. eta XX. mendeetan badela Irisarrin beste lan eder asko ere euskararen alde eginik».

Hausnarketa horren kariaz, izen batzuk ekarri ditu gogora Xarrittonek: Salvret Monho, Pierra Haristoy, Lukuze Kattileneko seme Aguerre, Joseph Gosterratxu gaztearen apeza, Jean Hiriart Urruty euskaltzain hazpandar zena. Klaudio Harluxet –«euskal mundu osoan bere itzal indartsua zabaldu zuena»– izan da Xarrittonen aipatu duen azken izena. «Jakin bezate beraz –azpimarratu du– gaur gure herri ondarea zaindu nahi

omen duten herri gizon guziek izan dela eta badela Irisarrin harri zaharrez besterik, bada euskara».

Xarrittonek azaldu bezala, Frantzisko Laphitz Larresoroko eta gero Baionako Seminarioan apezteko eskolak egin zituen eta 1857an apezte zuen. Gero, Baigorriara igorri zuten apez laguntzaile eta hortik Alzaira erretore, 1866an. Orduan idatzi eta argitaratu zuen, Baionan, 1867an, *Bi saindu heskualdunen bizia* hots, San Inazio Loiolakoaren eta San Frantzisko Xabierrekoaren historia. Horren ostean, Alzaitik Berramera joatea erabaki zuen Mixel Garikoitzek sortu ordenan sartzeko «eta horrela Ameriketara saldoka joaten ikusiak zituen gure mendien bi aldetako euskaldunen apez izateko gisan».

Uruguain eta Argentinan ibili zen misiolari. Argentinan, hain zuzen ere, euskal elkarteak sortzen ari ziren: «Hor du erakutsiko aita Laphitzek oraino bere bitartekari dohain berezia. Errekaborde zalgiztar puxantaren eta beste dirudun eta fededun andere zenbait bildurik *Euskal Herrietako Zazpiak Bat* eginik sortuko dute Buenos Airesetik 35 kilometrotan dagoen Llavalleoko zelai zabalean hiru adar bederen izanen dituen obra nagusia: euskal gizon eta emazte xaharren etxe berezia, ikastegi bat neska umezurtz eta besteentzat, ikastegi bat eta laborantza eskola sail bat mutikoentzat».

P. Salaburu: «F. Laphitz: euskara batua eta euskara ereduak»

Laphitzen euskararen ezaugarriak, alde batetik, euskararen beraren aberastasuna, bestetik. Horiek biak izan dira Pello Salabururen gaurko hitzaldiaren xedeak.

Euskararen batasunaren bidea abiapuntutzat hartu du euskaltzainak eta halaxe azaldu du: «Entzuten hasiak gara aspaldixko hizkuntzaren batasuna –itxuraz bada ere– nolabait zalantzan jartzen duten ahotsak: ustez, nonbait, euskarak kolorea galdu duen, beldurrez gure baserrietako hitz jarioaren aberastasuna atzenduxe dugun, egungo euskara batu hori, batua bai, baina batzuetan ez gehiago dela euskara iduri, haien aburuz. Batzuek, akiduratik hurbil ikusteraino ailegatu dira. Eta, diote, hori konpontzeko moduetako bat dugu herri hizkerara, herrietako mintzoetara, itzultzea, erran nahi baita, baldin gai izaten bagina, maila batzuetan, gure baserrietan ibiltzen genuen euskara goxo eta hurbil hura egungo arlo landuetan ibiltzeko ere, orduan batasuna bera ere aberastuko genuke, eta bere on bidera ekarriko mintzaira batua». Gauzak, baina, ez dira hain errazak, hori onartzetik atera diren ondorioetako batzuk, bederen, ez baitira batere zuzenak, Salabururen iritziz.

Euskarari «kolorea eta distira» ematea ez omen da hitz baten truke lortzen den saria. Jendeak praktikan ibiltzen duen batasun eredu kolokan jarri beharreko kontua litzateke: «Euskaltzaindiak –esan du Pello Salaburuk– batasun eredu baten proposamena egin du urteen joan-etorrian, bai, baina gero idazleek batasun proposamen hori modu batera ulertu dugu, aise estuago den modu batera bakarrik». Hala bada, gaineratu du euskaltzainak, «Euskaltzaindiak definitu duen ereduaren interpretazio bat egin dugu, interpretazio batek hartu du indarra, bat nagusitu da praktikan egiten ahal ziren gainerakoen artean, eta hori ez da gauza ona. Euskararendako ez da gauza ona».

Euskararen Akademiak gaur omendu duen Laphitzek utzitako ereduak ontzat hartu du Salaburuk. Horrek, erran du, «idazle trebearen argitasun eta erraztasuna erakutsi

zigun» eta *Bi saindu euskaldunen bizia* izeneko liburua, adibidez, «erreferentzia behar luke izan, nire ustez, euskaraz idatzi nahi duen orentzat».

Azken batez, hauxe da gakoa: hizkuntzaren osasunaren mesedetan, berdintasun homogenea hautsi egin beharko litzateke, beti ere homogeen hitzean jarrita azentua: «Ezik batasunak bide bat baino gehiago badu. Eta denak ibiltzen ahal baitira. Hobeki erran: denak ibili behar dira. Hori da hizkuntza aberasteko bidea. Zeren hizkuntza idatzia nekez aberastuko baita funtsean oinarritzat eredu estandarra hartzen badugu eta txokokeria batzuk sartzen han-hemenka, atzenez aldi berean badirela bertze bide batzuk aski erabilgarriak izan daitezkeenak».

Laphitzen lanak balio du hori frogatzeko, berak erabilitakoak «euskara batuan idazteko eredu aberasteko aldarrikatu nahi nituzkeen bideak» baitira, amaitu du Pello Salaburuk.

Xipri Arbelbide: «Jean-Pierre Arbelbideren bizia eta lanak»

Jean-Pierre Arbelbide Zaron jaio zen 1841eko abenduaren 20an, eta Baionan hil, 1905eko urtarrilaren 27an. Eliz gizona izan zen eta argitaratu zuen libururik ezagunena *Erlisioea: Eskual-herriari dohazkon egiarik beharrenak* da, 2004an Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak berrargitaratua.

Arbelbideren bizitzaren joan-etorriak gogora ekarri ditu Xipri Arbelbidek gaurko hitzaldian: lehenengo ikasketak Baionan egin zituen, ondoren Larresoroko seminarioan sartu eta, azkenik, Baionan egin zuen seminario handia, 1867an, apeztu zelarik. Hazparneko misiolarien kongregazioko burua izendatu zuten. 1887an, bere lehen liburua idatzi zuen, *Bokazioea edo Jainkoaren deia*. Gero *Hazparneko Galbarioa* (1892), *Erlisioea* (1890), *Igandea eta Jaunaren Eguna* (1896) plazaratu zituen.

Xipri Arbelbidek esan bezala, Ameriketako Euskaldunetz arduratzea zen Arbelbiden kezka handietarik bat. Eta holaxe egin zuen, 1897. urtean joan baitzen Buenos Airesera, bost hilabeterako. Itzuli zenean, apezpikuarekin arazoak izan zituen, honek Hazparneko apezgaiak ez zituelako ordenatu nahi. Arbelbide Erromara eta Argentinara joan zen, arazoa bere kabuz konpondu nahian, baina ez zuen lortu: misionesten zuzendari-tzatik kendu zuen apezpikuak.

Xipri Arbelbidek esan bezala, «hil arte, denbora pasatuko du seroretan erretiro predikatzen».

Piarres Broussainekin eta Azkuerekin eskutitz ugari trukatu zituen, baita Julien Vinsonekin ere.

J. Haritschelhar: «Duny-Pétre gogoan»

Bestalde, Laphitzen eta Arbelbideren omenezko bilkuraz gain, zendu berria den Pierre Duny-Pétre euskaltzain urgazlea ere gogoan izan du Euskaltzaindiak. Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiak gogora ekarri duenez, Pierre Duny-Pétre «euskaltza-

le eta abertzale suharra» Donibane Garazin sortu zen 1914ko apirilaren 3an, eta eza-gutu zuen bi gerlen arteko Donibane Garazi herri euskalduna.

Duny-Pétre Erresistentziako kide izan zen: «Hogeita bost urte zituen Pierre Duny-Pétre-k hasi zelarik bigarren gerla, jadanik senditu zuela bere bihotzean Espainiako gu-dua, euskaldunen zorte tristea, bilduak zirelarik Donibane Garaziko gaztelu zaharrean erbestean ziren euskaldun haurrak Lafitte apezari eta orduko Donibaneko alkateari Ha-ranburu jaunari esker».

Haritschelharrek azaldu duenez, «1940.ean, Somme ibaiaren ondoan Alemanek preso hartu zuten, bainan hor agertzen da Pierre Duny-Pétre-ren jainua, bost aldiz es-ka-patuko dela, seigarren aldian 1942.ean askatzen dela osoki, Marseillara etorritz bere osaba Jean Pétre-ren ondora. Jaun hau da Frantzia Hego Ekialdeko erresistentziaren buru eta berehala jarraikitzen zaio osabari, gerla segituz Alemanen kontra sasi-gudari gisa».

1944an, DST zerbitzu sekretuetan sartu zen, gero komisario izendatu zutelarik. *Enbata* aldizkariaren eta mugimendu politikoaren sortzaileetarikoa izan zen gizona «abertzale izan baino lehen euskaltzale da». *Basajaunaren historia*, *Garaziko hiri na-gusia*, *Manexen marrakak*, *Garaziko solasak* eta *Xirula Mirula* ipuin eta kontakizun-ak idatzi zituen: «Ikusirik zer beherakada daukan euskarak Garazin eta Iparraldean, biltzen ditu haur kantatu, eskolako jostetak, erran zaharrak, horiek guziak berak entzuna Alduden, han bizi zelarik edo Donibane Garazin, bilduz ere bere familian, bai eta ere bere andrearen familian».

Euskaltzaindiak 1963ko maiatzaren 18an izendatu zuen euskaltzain urgazle, «be-reziki bere olerkari emaitzarengatik», Haritschelharren esanetan. Erabili zuen gai na-gusia, hauxe: «Iragana bere oroitzapen xoragarriekin *«Mais où sont les neiges d'an-tan!»* delakoaren oihartzuna, ezeztatzen ari dela, hautetsiek, agintariek ez dutelarik deus egiten euskararen hiltzaile den bizitzeko manera berriaren kontra, gehienetan haren la-guntzaile hurbil ez baldin badira esku mutil bilakatzen».

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria